

Denbora-



1 Sagu jakintsua




Kaixo laguntxoak! Urtaroezin jolas egin nahi? Ea asmatzen duzun zein egunetan hasten den urtaro bakoitza! **Ziur ongi lotuko dituzula!**

Erantzunak: 1.- Uda, ekainak 21 / Udazkena, irailak 21 / Negua, abenduak 21 / Udaberria, martxoak 21. 2.- Buzurra, karabela, Ezpata eta Makoa. 4.- Geldo - Motel / Kokolo - Memelo / Papar - Bular / Txikikeria - Huskeria / Postura - Dema. 5.- 5,25 euro, 3,50 euro eta 1,70 euro



2 Itzalak

Peter Panen etsai amorratua da Hook kapitaina. Alboko itzaletan Hook kapitainaren lau gauza daude. **Ondo begiratu, ea asmatzen duzun bakoitza zer den!**



3 Paulino detektibe

Paulino detektibe hasiberria beste kasu bat ikertzen ari da. **Ondoko irudiei begiratuta, lagundu gertatu dena idazten!**



- pasak




4 Sinonimoekin jolasean

Bost gozoki bikote osatu behar dituzu. Ez dakigu zein zapore duen bakoitzak, beraz, lotu sinonimoak direnak edo esanahi berdina dutenak!

5 Erosketak

Amonarekin joan da gaur Laida merkatura, eta udareak, gerezia, laranja eta tomateak erosi dituzte. Zenbat diru gastatu duten asmatuko al zenuke?



$$\text{Orange} \times 3 + \text{Pear} \times 6 + \text{Cherry} \times 4 =$$

$$\text{Tomato} \times 8 + \text{Orange} \times 2 + \text{Pear} \times 3 =$$

$$\text{Pear} \times 2 + \text{Cherry} \times 1 + \text{Tomato} \times 4 =$$



Zaldiak eta zaldunak

Gustatzen al zaizkizue Erdi Aroko zaldunen borrokak? Zaldi beharrik gabe, uretarako jolasa ere izan daiteke; ez dago min hartzeko arriskurik.

1 Uretan jarduteko jolasa da, sei lagun edo gehiago behar dira. Garai honetan, igerileku batean jolastea hobe. Udan errekan ere jolas zaitezke. Kontuan izan beharreko bakarra, ura gerriraino ailegatzea.

2 Jokalariak binaka jarri beharko dute. Komeni da bikote bakoitzeko kideek altuera eta pisu berdintsua izatea.

3 Jokalari batek zaldiarena egingo du; besteak, berriz, zaldunarena.

4 Erdi Aroko borrokaldi bat irudikatuko dugu, guztiak guztien aurka. Helburua, aurkarien zaldunak uretara botatzea.

5 Bere zaldiaren gainean geratzen den azken zalduna izango da irabazlea. Hurrengo txandan, postuak aldatuta jolas egin dezakezue.